



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurune Departamentua

Oinarri teknologikoko enpresask edo Enpresa berritzaileak sortzeko programa

TXEKINTEK

AMAIERA TXOSTENA OSATZEKO GIDA



APLIKATIBOAN OSATU:

- Proiektuaren **amaierako txostena** eta eranskinak.
- **Zereginak**: amaiera data, orduak, egoera eguneratu (amaituta dauden zeregin guztiek egoeran izan beharko dute).
- **Egitasmoaren kostuak**: Gauzatutako kostuak eta finantzaketa plana.
- Egitasmoko **kostuen frogagiriak** eta beraien **ordainagiriak** eskaneatu eta erantsi.
- Proiektuan zehar **sortutako dokumentazioa atxiki** behar da.

NOLA ERANTSI GAUZATUTAKO KOSTUEN FROGAGIRIAK

Kostuen **frogagiriak** eta beraien **ordainagiriak** eskaneatu eta erantsiko dira. **Justifikatzen den kontzeptuaren izenarekin pdf** dokumentu bat erantsiko da. Bertan **faktura/frogagiri** bakoitza bere **ordainagiriarekin** batera agertuko da, **8. eranskinean jarritako hurrenkera** jarraituz.

15.000,00 € EUROTİK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Entitate onuradunak dirulaguntzetan sartzen diren gastu batzuk egin baditu, **15.000,00 euro edo hortik gorakoak** (BEZa kanpo), ondasun ekipoak erosten edota aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzu prestazioak erosten, **eskatutako hiru eskaintzen artean egin duen aukera egiaztatzeko dokumentazioa** aurkeztu behar du. Salbuespena: laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez badago zerbitzu horiek emateko, edo kostua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez bada.

PROIEKTUAREN PUBLIZITATEA

Jasotako **laguntzaren eta sustapenaren publizitate egokia** (irudi instituzionala, leloak... sartuz dokumentuetan, euskarri elektronikoetan, **komunikazio hedabideetan, etab.**) biltzen eta ikusarazten duen dokumentazioa erantsi behar da, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak proiektuari emandakoa.

ZERGA ETA GIZARTE SEGURANTZAKO BETEBEHARRAK BETETZEA

Entitatearen **zerga betebeharrak eta gizarte segurantzako betebeharrak egiaztatzea** GFAko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa



Inguruneko Departamentuaren esku geratu zen, horretarako **baimena eman bazion** erakundeak eskabide agiria luzatzean. Beraz, egiaztatze lan hauek GFAko Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak kudeatuko ditu zuzenean, hala behar izanez gero. **Enpresak Gizarte Segurantzaren ordezeko sistema izango balu**, berarekiko betebeharrak betetzen dituela azaltzen duen **egiaztatzea erantsi**.

Proiektuaren dokumentazioa

Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki behar da. Proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak erantsiko da ere.